



Ametsetako arbola

ZERGATIK IRAKURRI LIBURU HAU?

Lagun batzuen ilusioak eta natura eta animaliak nola maitatzen dituzten kontatzen duelako. Haurrak amets egitera bultzatzen dituelako eta irudimenaren ahalmen handia ezagutzen ez dutenei begiak irekitzen lagunduko dielako.

ARGUMENTUAREN LABURPENA

Rasi katagorriak ez du aurkitzen iazko udazkenean ikastetxeko jolaslekuan lurperatu zuen fruituetako bat. Baina katagorriaren lagun-taldekoek eta Elisak, mantentze-lanetako arduradunak, fruitua aurkitzen lagunduko diote, eta, elkarrekin, Rasik lurperatutako hurra ernamuindu eta arbola txiki bihurtu dela ikusiko dute. Gau horretan, denek amets bera dute: hazi magiko batek emandako fruituak biltzen dituzte.

NORENTZAT DA LIBURU HAU?

Era guztietako irakurleentzat, batik bat sormen handia dutenentzat eta animaliak maite dituztenentzat. Lagunekin abenturatan ibiltzea eta naturaren sekretuak aurkitzea gogoko duten haurrentzat. Baita marraztea atsegin dutenentzat ere, irudimena lantzeko aukera izango baitute, ipuineko azken ilustrazioan ametsetako arbola bat marraztuz.

JARDUERA-PROPOSAMENA



BAKARKA

Kontakizunaren hasieran, lagun-taldeko kide guztiak deskribatzen dira, taldeari izena ematen diona izan ezik. Proposatu ikasleei Rasi katagorriaren aurkezpen txiki bat egiteko. Gogorarazi aipatu behar dutela nolako den eta zer egitea gustatzen zaion.



BAKARKA

Eskatu ikasleei 42. eta 43. orrialdeetako irudiei behatzeko eta katagorriaren lagun-taldeko kide bakoitzak zerekin egin duen amets idazteko. Aholkatu eskema hau: *Norak/Aitorrek/Irenek/Ismaelek... betetako arbola batekin egin dute amets, ...-lako.*



BIKOTEA

Irakurri ikasgelan Irenek 26. orrialdean esaten duena: “Zer zaila den zerbait aurkitzea, zeren bila zabiltzan ez dakizunean!”. Ondoren, jarri ikasleak bikoteka eta eskatu txandaka pentsatzeko **natura-elementu** bat (*hostoa, harria, lorea, arbola, mendia, ibaia, aintzira, ur-jauzia, etab.*) eta ikaskideari deskribatzeko, asmakizun baten moduan.



TALDEA

Azaldu ikasgelan liburuaren izenburua, *Janari-biltegi magikoa*, naturari buruzko metafora bat dela. Gero, bultzatu ikasleak ikasgelako objektuei buruzko metaforak asmatzera. Laguntza gisa, zenbait adibide aipa ditzakezu, denen artean zer objektu den asma dezaten: *ikasgelako begiak (leihoak), hatz margolaria (arkatza), abentura-dorrea (liburuaren apalategia), beso hozberak (esekitokiak), horma jakintsua (arbela), etab.*



NATURAREN ZIENTZIAK

Eskatu ikasleei katagorriaren antzera egiteko eta hazi bat erieteko ikasgelan. Azaldu zer egin behar duten landarea osasuntsu hazteko (*aldizka ureztatu, eguzki-izpietatik gertu jarri, etab.*) eta, une egokia iristen denean, animatu ikasleak landarea eskolako jolastokian landatzera.



IDAZKETA-TAILERRA

Irakurri ozen katagorriaren lagun-taldeko kideen aurkezpena (6. eta 7.or.) eta proposatu ikasleei beren bi lagun labur-labur deskribatzeko, batak eta besteak duten ezaugarri bat baliatuz. Horren ondoren, nahi duten ikasleek gainerako ikaskideei irakur diezaiekete idatzi dutena.